

EUSKARA. Txiki gelditu zaien eraikin bat moldatzea eta eskaintza zabaltzea da antolatzaileen helburua

Alberto Barandiaran | TUTERA

Tuterako udal kiroldegian atzo arratsaldean egin zen festarekin abiatu da ofizialki aurtengo Nafarroa Oinez, *Muga guztien gaineretik* lelopean Tuterako Argia ikastola handitzeko beharrei erantzuna emateko prestatu eta pentsatua.

Mugetan aritzeko zailtasuna eta askotan ezintasuna, baina mugak gainditu beharra, eta mugetako inguruetan dagoen aniztasun eta aberastasunarengatik harrotasuna ere bai: sentimendu eta aldarrikapen horiek denak izan ziren atzo egin ziren hitzaldietan.

Akaso hobekien laburbildu zuena, Aingeru Epaltza Nafarroako Ikastolen Elkartearen lehendakaria. «Aurtengo helburua mugak desagerraraztea da: euskarari jartzen zaizkionak, ikastolari jartzen zaizkionak, baina baita geure buruari jartzen dizkiogunak ere».

Hainbat arlotako ordezkari ezagun

Tuterako kiroldegiko jaia garrantzitsua zen Nafarroa Oinez antolatzaileendako, eta gonbiten artean kultura, politika eta gizarte taldeetako ordezkariak bildu ziren arratsaldeko zazpietatik aurrera.

Haien artean, hainbat euskaltzain, politikari, kirolari ezagun ere egon ziren.

Ekitaldia ikastolako haurrek hasi zuten, kantekin eta dantzekin. Iñaki Perurenak eta Ana Laura de Diegok aurkeztu zuten, eta jotak, trikitixak, txiste kontariak eta dantzak entzun eta ikusi ahal izan ziren.

'Muga guztien gaineretik' abiatu da aurtengo Oinez

Jaiaren abiatze ofiziala egin zuten atzo iluntzean, Tuteran



LANDER F. ARROIABE/ARGAZKI PRESS

Ikastolako haurrek Nafarroa Oinezeko abestia aurkeztu zuten Tuterako kiroldegian.

Ondoren, Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusiak hartu zuen hitza. Esan zuenez, elkartea osatzen duten talde guztien babesa adieraztera joan zen atzo Tuterara, eta Erriberan ere euskarazko irakaskuntza eskatzeko bertakoek duten eskubidea aldarrikatu zuen.

Kontxi Blanco Argia ikastolako lehendakariak gogoratu zituen ikastolaren hasierak, 1985ean bost ikaslerekin lehen ikastaroari ekin ziotenekoa, eta eurena txindurri lana zela azpimarratu zuen. «Erriberan benetakoa da euskaraz ikasteko eskaera, eta badugu hemen oso erronka garrantzitsua: euskara

Erriberako gizarteraino eramatea».

Txiki gelditu den ikastolako azpiegiturak

Luis Larrañaga ikastolako zuzendariak gogoratu zuen egun, Tuteran, neurri batean ikastolari esker zabaltzea euskararekiko errespetua, eta dagoen

hezkuntza eskaerari erantzuten ahalegintzen dela ikastola.

Aingeru Epaltza NIEko lehendakariak ere Nafarroako ikastola guztien sostengua ziurtatu ziren Argia ikastolakoei, eta bakarrik ez sentitzeko ondoan izango dituztela azpimarratu zuen.

Epaltzak gogoratu zuen ikastola batena ez baizik ikastola guztiena dela Nafarroa Oinez, «eta baita euskararena berarena ere».

Ikastolak 1995ean ere antolatu zuen Nafarroa Oinez. Orduan Fontellasaren egin nahi zuten eraikin berria aurrera eraman ahal izateko prestatu zen jaia, baina oraingo hazkundeari erantzun egokia emateko antolatu dute.

Atzo zuzendariak berak azpimarratu zuenez, duela zazpi urte ehun bat ikasle ziren ikastolan, eta egun, berriz, 250 inguru, Erribera osotik etorriak, eta LOGSEk zehazten duen irakaskuntza eskaintza osoa ematen dute. Txiki gelditu da eraikina.

Jaiarekin ateratako diruarekin gimnasio berria eta erabilera anitzeko hainbat gela atondu eta 0 eta 3 urte bitarteko zikloa eskaini nahi du ikastolak.

Dena behar bezala prestatzeko, hainbat lagun lanean ari dira dagoeneko batzordeetan, eta bihar bertan Trikitixa Eguna antolatu du ikastolak Tuteran. 11:30ean hasita, trikitilariak hirian barna ariko dira, eta 13:30ean Plaza Berrian egingo den elkarretaratzearekin amaituko da eguna.

Urrira bitartean, beste hamaiaka ekitaldi kultural antolatu dituzte Erriberako hiriburuan.

Hizkuntz eskubideak urratzen direla eta, herritar talde batek babesa eskatu dio arartekoari

A.B. | IRUÑEA

Nafarroako hainbat eskualdetako bizilagun talde batek babesa eskatu zion atzo Maria Jose Aranda arartekoari, «hizkuntza eskubideak urratu egiten direlako».

Taldeak, herritarren defentsariarekin izaniko bileran, egonezina azaldu zuen, eta Nafarroako Gobernuaren aitzinean ere eskubideen babesean jardun dezala eskatu zion arartekoari, bereziki Osasunbideak merezimendu lehiaketa eta lekualdatze bitartez betetzeko argitaratu diren deialdiak direla eta.

Baztango, Bortziritako, Sakanako, Leitza inguruko eta Erronkariko bizilagunak izan ziren, besteak beste, arartekoari arrangura agertarazi ziotenak.

Bileran, arartekoak jakinarazi zuten, antzeko bileretan egin duen bezala, gaia auzibidean dagoen bitartean zer eginik ez duela, eragina mugatua duela alegia.

Osasunbiderako deialdi berriekin, larriago

Herritarrek, eta haien izenean Pello Apezetxea Etxalarko apaizak, adierazi zuten egun, Nafarroan, ezinezkoa dela administrazioarekin euskara erabiltzea, eta bereziki azpimarratu zuten osasunaren esparruan dagoen ezintasun hori.

Hala, gogoratu zuten berriki hainbat lanpostu betetzeko egoniko deialdiarekin egoera larritu egin dela. Lanpostuen artean pediatria, mediku, hezitzaile eta

administrari laguntzaileenak aterako dira lehiaketara. Horien artean zenbait lanpostutarako euskaraz jakitea beharrezkoa izanen da, bertezenbaitetan baloratu egingen da, eta gainerakoetan ez da aintzat hartuko.

Herritarrek gogoratu zuten, euskaraz jakitea beharrezkoa den lanpostuen kasuan, 1. jakite maila izatea nahikoa izango da, eta, horren bidez, euskaraz gaitasun osoa ez duten langileek bete ahal izango dituzte lanpostu horiek. «Alegia, gaixoezko komunikazioa behar bezalakoa izatea ez da bermatzen».

Gainera, 2000ko abenduko dekretuaren espirituari jarraiki, euskaraz jakitea beharrezkoa den lanpostuak eskuratzen



JOXE LACALLE

Maria Jesus Aranda, Nafarroako arartekoaria.

dituzten langileak aurrerantzean beti baldintza hori duten lanpostuetarako soilik lehiatu ahal izanen dira. «Horren ondorioz, baldintza hori duten lanpostuak hutsik geratzeko

arriskua bistakoa da», azaldu zuten atzo. Halaber, euskaraz jakitea beharrezkoa ez den lanpostuetan beste hizkuntzek euskarak baino gehiago puntuatzea kritikatu zuten.